

Gurasotasuna / Lan arriskuen protokoloa

Haurdunaldi baja

Hau lortzeko bi bide daude

1-Mutuatik

Prebentzio zerbitzua abisatu:


- Tramitagune bat bidali beharko du, NANaren fotokopia eta eskaera orria erantsita
- Era berean prebentziohezkuntza@euskadi.eus helbidera Txosten medikua publikoa eta jakinarazpen orria bidali beharko dira
- Honen ostean delegaritzako prebentzio zerbitzuak postuaren azterketa egingo du (1 hilabeterarte iraun dezake) Begiratu beheko eskema.
- Antigorputzak ez izateagatik edo eraso bat jasotzeko arriskua badago baja zuzena izango da. INFO+

*Prestazioaren kopurua kalkulatzeko, aurreko hilabeteko kotizazio aldia kontuan hartzen da edo murriztuan 3 hilabete media

LAB

EUSKAL
SINDIKALISMO
ERALDATZAILEA

Pausuak



LAB¹

EUSKAL
SINDIKALISMO
ERALDATZAILEA



2-Gizarte Segurantzatik

- Zure medikuak emango dizu
- Baja arrunta da. Medikuak ez du arriskuengatik baja ematen, osasun arrazoiengatik baizik (bizkarreko mina, zorabioak...)

ADI! Ez da berdina haurdunaldiagatik arrisku protokoloa edo arriskuko haurdunaldia!

Irakaskuntza-lanak egiteko ezintasun medikoa dela-eta lanpostua aldatzeko prozedura lanpostua aldatzeko

Norentzat:

- 1.- Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko irakasleen kidegoetako karrerako funtzionarioak.
- 2.- Praktikaldian dauden funtzionarioak.

Baldintzak:

- Irakaskuntza-lanak egiten jarraitu ezin duen langilea, baina administrazioak edota epaileek ezintasun iraunkor erabatekoa edota partziala ukatu dietenak edo ebazpenaren zain daudenak.
- Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetan gutxienez 10 urte lanean.

Eskaera:

- Hezigunean prestatutako formularioaren bidez
 - Dokumentazioa: Eskabidearekin batera, ezintasun iraunkorra ukatu zaiola edo ezintasun iraunkorra eskatu zenetik urtebete eta erdi baino gehiago igaro dela egiaztatzen duen agiria aurkeztu beharko da. Eta bestetik, txosten medikoak aurkeztu beharko dira.
 - Epea: eskabideak aurkezteko epea etengabe egongo da irekita. Hala ere, kasu horiek aztertuko dituen balorazio-batzordea bi aldiz bilduko da ikasturtean zehar: behin ikasturtea hasi aurretik eta bigarren aldian ikasturteko bigarren hiruhilekoa hasi aurretik.
-

Balorazio prozedura:

1-Prebentzio Zerbitzuak lanpostuaren aldaketa aztertu eta baloratzen du

2-Lanpostuaren aldaketa-txostena egin ondoren, Prebentzio Zerbitzuak Langileen Sailari jakinaraziko dio, lanpostu aldaketa aukera balora dezan.

3-Ebazpena aldekoa denean, bigarren jarduerarako lanpostu aldaketen batzordera bidaltzen da, erabaki bat adostu dadin.

Balorazio batzordea:

Bigarren jarduerarako lanpostu aldaketen batzordea kide hauekin osatzen da:

Langileak kudeatzeko zuzendaria.

Langileak kudeatzeko arduraduna.

Prebentzio zerbitzuko arduraduna.

Langileak kudeatzeko zuzendaritzako teknikari bat.

Hiru lurraldeetako mediku bat.

Hiru lurraldeetako prebentzio teknikari bat.

Sindikatu etako ordezkari bana.

Batzordea urtean bitan bilduko da lanpostuz aldatzeko aldeko ebazpena duten eskabideak ebaluatzeko. Batzorde hori urtarrileko eta ekaineko bigarren hamabostaldian bilduko da.

Ondorioak:

- Prebentzio Zerbitzuak horien jarraipena egingo du
 - Lanpostu-aldaketa eraginik gabe geratuko da ezintasun-espedientea ebazten den unean edo aldaketa eragin zuten arrazoiak desagertzen diren unean.
-